

NAFARROAKO GAZTE  
KONTSEILUAREN XXVIII. DHIKO  
BATZAR NAGUSIA  
(AKTA)



2015/03/07

## CJN-NGK ERAKUNDEAREN XXVIII. OHIKO BATZAR NAGUSIKO HITZARMENEN AKTA

### 1. XXVII. OHIKO BATZAR NAGUSIAREN INAUGURAZIO OFIZIALA

Goizeko 09:30etan eta behar adinako quoruma ez dagoenez, batzordearen hasiera 10:00etara atzeratu da, bigarren deialdiaren arabera.  
10:00etan abian jarri da batzordearen inaugurazio ofiziala.

### 2. “BEHARREZKO GAZTERIA” KANPAINAREN AZALPENA

Espainiako Gazte Kontseiluko (CJE) Hector Saz presidentek “Beharrezko Gazteria” kanpaina eman du ezagutzera.

### 3. CJN-NGK ERAKUNDEKO PRESIDENTEAK 2013 ELKARTEEN DIRU-LAGUNTZEKIN LOTUTAKO ARAZOARI BURUZ EMANDAKO AZALPENA

Iñaki Etxeberriak (CJN-NGK) laburki azaldu du 2013ko gazte elkarten diru-laguntzekin lotutako arazoaren gaia.

### 4. BATZORDEAREN ETA MAHAIAREN ERAKETA

Jarraian mahaiaren eratu da, horrela osatuta geratuz:

- Presidentea (CJN-NGK): Iñaki Etxeberria Ruesta.
- Presidentea (CJE): Hector Saz.
- Akten Idazkaria: Maria Echarren Zazpe.
- Presidenteordea: David Sanchis Cano.
- Akten bigarren idazkaria: Kevin Domingues.

10:10etan hasi da batzordea, bigarren deialdiaren arabera. 12:10ak bitartean presazko ebazpenak aurkeztu ahal izango dira mahaiaren aurrean.

### 5. BOTO ZENBAKETA ETA GEHIENGOAK

Gehiengoaren zenbaketa egin da, bertaratuak guztira 27 pertsona izanik, eta gehiengo absolutua 14 botoen arabera ezartzen da.

### 6. ERAKUNDE KIDETAKO ALTAK ETA BAJAK

Erakundetan ez da altarik eman, ezta bajarik ere. Aldaketa txiki bat dago: Morea Gazte Elkarteak ikusle bihurtu dela, beharrezko kide kopurura ez iristeagatik. Bozketari ekin zaio.

Alde: 27 boto Kontra: 0 boto
---------------------------------

Abstentzioak: 0 boto

**Ondorioz, onartu egin da.**

## 7. 2014 EKAINEN EZOHENAKO AKTAREN ONARPENA

Akta e-mail bidez igorri zen. Ez da ekarpenik jaso.  
Bozketari ekin zaio.

Alde: 27 boto

Kontra: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

**Ondorioz, onartu egin da.**

## 8. 2014 GESTIOAREN TXOSTENA

Iñakik aurreko ikasturteko txostena eman du ezagutzera.

[Julianek \(La Paz-eko Scouta\)](#) Zoriondu egin du Kontseilua. “Etxabeak eta liskarrak” txostenaren puntuaren inguruan galdetu du.

[Adrianak \(JSN\)](#) Zoriondu egin du Kontseilua. CJN-NGK erakundeak Nafarroako elkarte ezberdinekin erakutsi duen ageriko inplikazio aipatu du, baita guztiek elkarrekin jarduera ezberdinak partekatze aukera ere.

[Iñaki \(CJN-NGK erakundeko presidentea\)](#) “Etxabeak eta liskarrak” irratian gai horren inguruan egindako elkarrizketa bati dagokio, zeinetan etxabeen eta horien erregulazio berriaren inguruan mintzatuko ziren.

Erantsi du ez dagoela asebeteta bere Presidentzian lortutako emaitzekin.

Bozketari ekin zaio:

Alde: 27 boto

Kontra: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

**Ondorioz, 2014 Gestioaren Txostena onartu egin da.**

## 9. ONARPENA, HALA BADAGOKIO, 2014 BALANTZE EKONOMIKOARENA

Aurten eskuratutako diru-sarrera bakarra Nafarroako Gobernutik datozen aurrekontuetako diru-hornidurak izan dira, 60.000 €.

Gastu horien baitan daude kontratatuta daukagun administrazio arloko pertsonaren ordainsaria. Azterketaren elaboraziorako pertsona baten behin-behineko kontratua eta CJN-NGK erakundearen web orrialdearen elaboraziorako beste batena.

Gasturik garrantzitsuenak CJN-NGK erakundetik elaboratutako jardueri dagozkie. Jarduera hala nola gastu eta itzulketa ezberdinen inguruko azalpena emateari ekin zaio.

Ekarpenak:

Davidek (Mendaur Unibertsitate Kluba Gazte Elkarte) galdetu du nork erabakitzen dituen egiten diren jarduerak.

Iñakik erantzuna eman dio.

Ordezkarri bat gehiago erantsi da, botoa emateko eskubidearekin. Botoak guztira: 28 boto.

Bozketari ekin zaio.

Alde: 28 botoak  
Kontra: 0 boto  
Abstentzioak: 0 boto

**Ondorioz, balantze ekonomikoa onartu egin da**

## 10. 2015. URTERAKO JARDUERA ILDOAK

Iñakik esan du CJN-NGK erakundearen jarduera ildoak prestatuko direla.

Batzordea bi lan-taldetan banatuko da eta horiek,aldi berean, bi lan-talde txikiagotan azpi-banatuko dira.

Iñakik etenaldi bat proposatu du Batzordean eta eskertu egin du Batzordeko Gobernuaren izenean Jesus Beitiak izandako partaidetza,aldi berean Angel Ansa Gazteriaren Azpi zuzendaria bertaratu ez izana kritikatzuz, CJN-NGK erakundeko ordezkari bezala gazteekin dagozkion funtzioak ez betetzeagatik. Hori horrela, bost minutuko etenaldia egin da, 11:25etan.

Etenalditik itzuli gara, Eduardok 2015ean jorratuko dugunaren berri eman digu (jarduera ildoak).

Azaldu digu zer den Nafarroako Gazte Kontseilua, nork eratzen duten, zeintzuk diren gure zereginak, lanean jarduteko moduak (elkarreak, gazteria eta administrazio publikoa) eta nola funtzionatzen duen. Gazteen Ahotsa. Gazteen eta Administrazio Publikoaren arteko lotura-gunea.

Sonia eta Raul aurkeztu ditu, alegia 2015 urteko jarduera ildoen elaboraziorako lan-taldeak dinamizatzeaz arduratuko diren pertsonak. Hauek, garatuko ditugun dinamikak azaldu dituzte.

CJN-NGK erakundearen osoko bilera bertan behera geratu da, Iruñan, 2015eko martxoaren 7an.

Gaur arratsaldean berriro abian jarriko da 15:00etan.

Saioari berriro ekin zaio 15:28etan.

Arestian eratutako lan-taldeen ondorioak azaltzeari ekin zaio.

Iñakik eskertu egin dizkigu gure kolaborazioa eta ekarpenak, agerpenak amaitzean.

- Ekarpenak

Alvarok (La Paz Taldeko Scouta) ANFAS-etik adierazitako ekarpenen berri eman du; desgaitasunak jasaten dituzten pertsona ezberdinekin bizi duten egoeraz mintzatu dira, CNJ-NGK erakundetik igortzen den buletina “hizkuntza errazera” “itzultzeko” aukera aipatu dute, guztiontzat ulergarria izateko. Horren haritik, elkarte guztion artean aurrera ateratzeko kolaboraziorako eta partaidetzarako gonbitea luzatu zaigu, elkarri laguntzeko eta gauzak errazteko asmoz probetxua ateratzen ikastea eta gure ekarpenak egitea bultzatuz.

Ibai Aramburu (cjn-ngk elkartegintzako teknikaria) jaitsi da eta CJN-NGK erakundetik garatzea bururatu zaizkien ideia ezberdinak azaldu ditu. Horietako batzuk: bakoitzaren jarduera ezberdinak barne hartzen dituen elkarten egutegia sortzea web orrialdean, asociabox (elkarte bakoitzak fitxa bat betetzen du bere deskribapenarekin, jarduerekin,... eta hortik aterako da elkarte multzo bat mapa batekin, elkarte ezberdinak ikusteko), asteko elkarteak,...

Alvarok (La Paz Taldeko Scouta) esan du bere lan-taldetik prestakuntzaren gaia sortu dela; “hezitzaileen poltsa” bat sortzeko beharraz konturatu da, hezitzaile bezala aurrerapausoak eman ditzagun. CJN-NGK erakundean partaide izan nahiko lukete, hezitzaileen poltsa horretan, arlo ezberdinetako hezitzaileak bilatzeko beharrak sortzean, une zehatzetan.

Fran Beunzak (Garaiz) aipatu du ikasturte hasieran unibertsitatetan gure burua ezagutzera emateko aukera.

Txema Gonzalezek (Alaiz) esan du web orrialdea interaktiboa izan behar dela, plataforma ahaltsua. Elkarten interesak, gazteen beharrak konektatu egin behar dituela; baita haiek euren artean ere. Web orrialdea pertsonalizatu egin behar dela eta uneko beharrekin egokitu.

Eduardo Alonsok (La Paz-eko Scouta) planteatutako esku-hartzetarako erantzunak eman ditu.

Bozketari ekin diogu

Alde: 15 boto Kontra: 0 boto Abstentzioak: 0 boto
---

**Ondorioz, jarduera ildoak onartu egin dira**

## **11. ONARPENA, HALA BADAGOKIO, 2015 AURREKONTU EKONOMIKOARENA**

2015. urterako aurrekontuaren aurkezpena.

Iñaki Etxeberriak (cjn-ngk erakundeko presidentea) CJN-NGK erakundeko gastuak (administrazio arloaz haratago, gastu ezberdinak daude; esaterako Proiektuen Teknikaria eta Presidentziarena, baita bestelako gehiago ere. Iñakik horien berri eman du) eta diru-sarrerak (soilik hitzarmenetik datozen 60.000 euroak; ez dira planteatzen diru-laguntza gehiago eskatzea) eman ditu ezagutzera.

- Ekarpenak

**Txema Gonzalezek (Alaiz)** proposatu du beste Kontseilu batzuekin web orrialdea elkarlanean elaboratzeko harremanetan jartzea edota horrekin lotutako diru-laguntzaren bat eskatzea.

Eduardok azalpena eman du jardueren aurrekontua murriztagoa izateko arrazoietako baten inguruan, izan ere, iaz erabili gabe utzitako kopurua nahiko handia da. Bere ustean kopuru hori jardueren elaboraziorako behar adinakoa izan daiteke.

Akten idazkariak osoko bileratik atera egin behar izan du. **Kevin Dominguesek (JSN)** bere gain hartu du akten lehenengo idazkaritzaren ardura. **Adriana Hernandezek (Zagales)** bere gain hartu du akten bigarren idazkaritza.

Aipatu da desegokia dela Presidentetzarako aurrekontu partidak jardueren aurrekontua gainditzea. Gai hori berrikusteko eskaera egin da.

Presidenteak azalpena eman du Presidentetzari dagokion aurrekontu partida zabaltzeko arrazoiaren inguruan, izan ere, dietak debekatuta daude, CJE-NGK erakundeak erabiltzen duen metodoa izanik. Berretsi du Presidentetzaren zereginak gastuak eragiten dituela. Azaldu du "inbertsio" moduko bat izan daitekeela Presidentetza liberatzea, CJN-NGK erakundeko jarduera orduen eskuragarritasuna hedatu ahal izateko.

Ordezkeri batek esan du aurrekontu partida hori etorkizuneko garai oparagoak heldu bitartean aurrekaria bihurtu ahal izango dela.

**Iñaki Etxeberriak (CJN-NGK erakundeko presidentea)** azaldu du, bere esperientzia pertsonalaren arabera kargu hau betetzeak esfortzu handia eskatzen duela.

**Jesus Beitiak (INDJ)** esan duenez, jadanik badaude aurrekariak CJN-NGK erakundeko pertsonen liberazioan. Halaber aipatu du Kontseiluak aurrekontu handiagoarekin kontatzen zuela. Esan du Presidentetzak denborari eta alditan diruari dagokienez gastu handiak ekartzen dituela, CJN-NGK erakundera datorren gazteak dirua galtzeko modukoak.

Aipatu da partida honen arabera norbaitek pentsa dezakeela "Presidenteak izatean dirua irabazten dela". Ziurtatu du xehetasun bat dela, baina xehetasun esanguratsu bat.

**Eduardo Alonsok (La Paz-eko Scouta)** esan du bilerak ospatu direla autonomietako Gazte Kontseiluekin eta horietako zenbaitetan dagokion Kontseiluko Presidenteak liberatuta dagoela. Ziurtatu du horrek ez duela inoiz arazorik eragin izan Espainiako geografiako gainerako Autonomia Erkidegoetan.

**Sonia Cabrerok (Lamias)** galdetu du zein prozedura juridiko erabili izaten den Kontseilu honetan Presidenteak izateko pertsona "kontratatzeko" planteamenduan. Gainera eskatu dio Gazte Departamentuari Batzorde Iraunkorraren gastuak (lekualdatzeak, ostatua...) justifikatu ahal izateko aukera. Esan du bere Elkartean, Lamias, maila Federalean, Presidenteak proiektu izaerako hornidura batekin kontatzen duela, zeinetan Presidentetza betetzeko hainbat ordu emango dituen.

**Franek (Garaiz)** zalantzan jarri du uste hori, alegia hornidura ekonomikoa jasotzean Presidentziaren funtzionamendua hobetuko denarena. Emango den irudiak kezka eragiten dio.

Alvaro Sesmak (La Paz-eko Scouta) galdetu du nola formalizatuko den kontratu hori edo nola eskuratuko den dirua.

Julianek (La Paz) azaldu du hornidura ekonomikoak haren zaintza zorrotzagoa eskatuko duela eta hori positiboa izango dela. Gaur hitz egindakoa ulertu du.

Franek (Garaiz) aipatu du Presidenteak ahal duena egingo duela, eta ez dator bat Julianekin.

Iñaki Etxeberriak (cjn-ngk erakundeko presidentea) azaldu du partida hau ez dagoela proiektu batekin lotuta, aitzitik liberazio baterako dela, kontseiluan bere dedikazioa hedatzea bermatzeko. Berretsi du jadanik Batzorde Iraunkor honen aurrekoan liberazioaren aurrekaria ezagutu zela. Nafarroako Gazte Kontseiluko Presidenteak CJN-NGK erakundeko Barne Araudiko 34. artikulua irakurri du, Presidentetzarako aurrekontu partida hau berresten duena. Bere esanetan, Autonomia Kontseilu bakarra gara zeinetan Presidenteak bere funtzioak betetzeagatik ez duen ordainsari osagarririk jasoko. Soniari erantzun dio partida hau emateko formula ezberdinak daudela, pertsona hartzaileak banatzeko dagoen kopuruaren atalik handiena jaso dezan, oraindik azken proposamenik ez badago ere.

Sonia Cabrerok (Lamias) eskatu du presidentetzarako aurrekontu partida onartzeko erabakia atzeratzea, beharrezko informazio guztia eskuratu bitartean.

Julianek (La Paz) eskatu du CP Kontentsazioaren aurrekontu partida bozkatzea, gainerako Aurrekontua alde batera utzita.

Onartu egiten da “CP Kontentsazioa” aurrekontu partida aldeko bost botorekin, kontrako laurekin eta bost abstentziorekin.

Presidenteak esan du Batzorde Iraunkorreko kidea liberatzeko moduaren inguruko informazio guztia osatuko dela eta jarraian erakunde kide guztietara helaraziko dela.

Bozketari ekin zaio

Alde: 8 boto  
Kontra: 0 boto  
Abstentzioak: 4 boto

**Ondorioz, 2015erako aurrekontu ekonomikoa onartu egin da.**

## **12. BATZORDE IRANKORREKO PRESIDENTETZAREN ETA BATZORDEKIDEEN HAUTAKETA**

Presidenteak azaldu duenez, Araudiak eskatzen du Presidentetza eta batzordekideak bereizita bozkatzea. Presidentetzaren boto zenbaketa egin ostean, batzordekideen bozketari ekingo zaio.

Hautagai bakarra (Eduardo Alonso Arechaga) aurkeztu da Osoko Bileran.

Banan-banan deitu zaie bozkatzeko akreditatuta dauden ordezkari jaun-andreei.

Alde: 12 boto  
Kontra: 0 boto  
Abstentzioak: 0 boto

**Ondorioz, CJN-NGK erakundeko presidente berria onartu egin da, Eduardo Alonso Arechaga.**

Batzorde Iraunkorreko Batzordekideen bozketari ekin zaio.

Alde: 12 boto  
Kontra: 0 boto  
Abstentzioak: 0 boto

**Ondorioz, cjn-ngk erakundeko presidente berria onartu egin da.**

Iñaki Etxeberria batzarkide bezala hautatua izan da, 11 botoren arabera, guztira emandako 11 botoetatik; era berean Barbara Trebol Casero, 11 botoren arabera emandako 11 botoetatik.

### **13. ONARPENA, HALABADAGOKIO, AURKEZTUTAKO EBAZPENENA**

- CP ebazpena: CP-ko ekintzak berretsi.
- Ebazpena: #BeharrezkoGazteria.
- Ebazpena: Hiritartasun Aktiboa.
- Ebazpena: 2015eko Jarduera Ildoak.

Azalpena egitean, ebazpena irakurritzat ematen da.

[Davidek \(Mendaur\)](#) bi zuzenketa ortografiko egin ditu.

Batzordeak onartu egin du zuzenketa.

[Sonia Cabrero \(Lamias\)](#) prentsaurreko baten bidez aurkeztuko da.

[Iñaki \(CP\)](#) konturatu da ebazpenen larritasuna epez kanpo bozkatu behar dugula, baina arazoa da ez garela bertaratu akreditatutako ordezkarien gehiengo sinplea ere. Kontsultatu du Barne Araudiaren arabera zein den arazoaren irtenbidea, ebazpenekin aurrera jarraitu aurretik. Izan ere, barne araudiko 29. artikulua arabera debekatuta dago. Beraz, gai-zerrendako ondorengo puntuarekin jarraituko dugu.

### **14. GALDE-ESKEAK**

[Julianen \(Scout la Paz\)](#) iradokizuna izan da batzordea bazkaltzeko orduan amaitzea. Aberasgarriak izan dira lan-taldeak. Elkarre gehienek bizitza aktiboa izaten dute larunbata arratsaldez.

[Alvaro \(Scout la Paz\)](#) ados azaldu da.

[Franek \(Garaiz\)](#) Eduardo Alonso animatu egin du bere ibilbide berriari begira.

[Iñakik \(Presidente\)](#) azalpena eman du batzordea garatzeko moduaren inguruan, Juliani erantzunez.

[Eduardo Alonso \(cjn-ngk erakundeko presidentea\)](#) bat dator Julianekin. Batzordea goizez ospatzera konprometitzen da. Iraupena ez murriztera baina goiz batean trinkotzera.

### **15. BATZORDEAREN KLAUSURA**



Iñaki Etxeberriak (CP) batzordearen amaiera adierazi du esker onak emanez, Raul Almarcharen eta Sonia Cabreroren aipamen berezia eginez. 17:54etan amaitutzat eman da CJN-NGK-REN XXVIII. BATZORDEA.

### **Akta izenpetu dute**

**Eduardo Alonso**  
**(Presidentea)**

**Maria Echarren**  
**(Idazkaria)**

**David Sanchis**  
**(Presidenteordea)**

**Kevin Domingues**  
**(2. Idazkaria)**